ataria

2022-01-07 • 1.531. zenbakia
107.6 fm • Ataria.eus

Suizidioaren prebentzioa gizarte osoaren ardura

AURKIBIDEA

Iritzia Itzea Urkizu Arsuaga **3**
Erreportajea Zuhaitz kontuetan Urkizu eta Ugartemendia **4-7**
Baso Ertzetik Jon Ander Galarraga **8-9**
Asteko Gaia Suizidioaren prebentzioa lehen lerrora **10-17**
Hitzez Hitz Xabier Telleria **18**
KMK Josu Ozaita **19**
Iritzia Ion Mintegiaga 'Minde' **20**
Iritzia Onintza Lasa **21**
Elkarrizketa Aritz Pereda diseinua eskulangintzari loturik **26-29**

Azaleko irudia
ATARIA

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:

Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Bertigoari

ITZEA URKIZU ARSUAGA
INAUTERIZALEA URTE OSOAN

Sortzen du halako bertigo sentsazio txiki bat, urteko lehen astekarian idatzi behar izateak. Batez ere, ziklo hasiera bati eskatu ohi zaion mezu sendo eta moralistarik esku artean ez duzunean; zure asmorik behinena denean, ikasturtea lasai samar pasatzea eta udan gehiago irakurtzea. Hala tokatu da, ordea, eta nire egitekoa da, gaur, bi mila eta hogeita biko urtarrileko lehenengo ostiraleko astekariko hirugarren orrialdean, fundamentuzkoa izan litekeen ekarpentxo bat egitea. Eta, hainbeste ideia, asmo, proiektu eta aldaketa abiaraztear diren urte berri hasiberri honetan, zerbait esan nahi nuke: ezer ez dela zerotik hasten.

Edo, ez luke hala behar. Sukaldean egutegi berria zintzilikatzeak amnesia interesdun baten jabe egiten gaituela baitirudi batzuetan; urte berriak baimena ematen digula, iaz izan ginena alfonbra azpian sartzeko eta aurrera egiten saiatzeko. Ezer bukatu ez denean, berriz hasteko.

Eta horrela bilakatzen dugu mina zenbaki huts; horrela sartzen ditugu ahanzturaren zakuan, urteko lehen egunaren aurretik eraildako emakume guztien izen-abizenak. Horregatik zuritzen dugu geure burua Whatsapp bidezko zorion mezuz, gorputzetik eta gertutasunetik zaindu ez ditugun horiek goxatzen saiatzeko. Modu horretantxe engainatzen dugu geure burua, enegarrenez, ispilu aurrean jarri eta pentsatzean, urtarriletik aurrerako asmo on guztiek lagunduko digutela kristal horretan ikusten dugun isla maiatzen.

Badugu zer pentsatua, ziklo berriei jartzen dizkiegun erronken inguruan. Denak ez badira, gehienak daudelako josita gorputzera; arauaren barruan sartuko den gorputz bat izateko nahi horretara. Tira, albiste on bat: ezer ez da zerotik hasten, ezta ispilu aurreko frustrazioak ere.

Hamazazpi bat urte izango nituen, orduko mutilak eta biok gure lehenengo hondartzarako hitzordua egin genuenean. Uda, itsasoa eta maitemin nerabea; itxuraz, perfekzioak ez zuen urruti behar. Baina gogoan dut egonezinez pasatu nituela hondartzara iritsi aurreko orduak, nire fisikoak mutilaren itxaropena aseko ote zuen pentsatzen. Gero iritsi zen, egonezin hori betikotzeko nahikoa arrazoi banuela adierazi zidan zerbait: antza, mutilaren kuadrillakoek halako ohartarazpen bat egina zioten nire inguruan, aurretik. «Lagunek esan didate ez zaudela ona, baina uste dut oker daudela». Gaitz erdi, pozik egon behar.

Subkontzienteak berriki freskatu dizkidan aspaldiko kontuak dira horiek, baina, tamalez, emakume izendatuon gorputzen gaineko biolentziak ez du ez egutegirik, ezta ziklorik ere; beti egongo da kuadrilla bat, eskatu gabeko iritziak emateko. Continuum hori arnastuz iritsi gara honaino, bi mila eta hogeita biko urtarrileko lehenengo ostiraleraino, eta bada nahikoa arrazoi, bertigoz bada ere, ispiluari samur begiratu eta erronka bizigarriagoei heltzeko.

Emakume izendatuon gorputzen gaineko biolentziak ez du ez egutegirik, ezta ziklorik ere; beti egongo da kuadrilla bat, eskatu gabeko iritziak emateko. Continuum hori arnastuz iritsi gara honaino.

Joxe Ramon Urkizu, Anoetako Urkizu mintegian. **J. ARTUTXA**

HEZTEKO, HAZTEA BEHAR

Joxe Ramon Urkizuk hiru hamarkada daramatza Anoetako Urkizu mintegian lanean, mota guztietako landare eta zuhaitzak saltzen. Negua «urteko sasoi onena» izaten dela eta pandemiaren eraginik ez dutela jasan esan du; hala ere, sektoreak bestelako arazoak dituela aitortu du.

Josu Artutxa Dorronsoro

Anoetako Elbarren Bailaran dago Urkizu mintegia. Gipuzkoan geratzen diren bost mintegietako bat da; gainerakoak, Zarauzko Lurberry, Urnietako Urkiondo, Zegamako Arakama eta Ataungo Dorronsoro dira. «Otsailetik aurrera hiru soilik izango gara, Dorronsorok erretiroa hartuko baitu», aurreratu du Joxe Ramon Urkizuk. «Geroz eta konpetentzia txikiagoa dugu gure sektorean», gaineratu du.

Mintegiaren ardura darama Urkizuk, bere bikotearekin eta anaiarekin batera. Familiako negozioari jarraipena ematen ari dira. «Aita hasi zen lan honetan, duela ia 55 urte. Geldialdi bat izan zuen gero, eta 1980an hasi zen berriro». Duela 30 bat urte batu ziren bi semeak, eskolako ikasketak amaitu eta berehala. Familiako hiru senideez gain, hiru langile dituzte.

Fruta arbolak, koniferoak eta basoko landare autoktonoak saltzen dituzte. Azken horietan, produkziokoak (sekuoia eta kriptomeria) eta kontserbaziokoak (bertako haritza, pagoa, lizarra eta haritz amerikarra) sailkatzen dira. Kanpotik ekarritako zenbait landare ere saltzen dituzte. «Hazitik hasi eta mendian zein basoan landatu bitarteko tartean hazten ditugu, urtebete edo bi urteko epean», azaldu du Urkizuk.

Urtea bitan zatituta

Maiatzetik urria amaitu bitarteko sasoia izaten da lasaiena urkizutarrentzat. «Urte guztian zehar izaten dugu lana, baina epe honetan, ez gara telefonoaren menpe egoten. Edozein egunetan egin dezakegu jai, nahiz eta beste egun batean lan bikoitza egitea egokitu. Nahi bezala antolatzeko aukera izaten dugu».

Azarotik martxora bitarteko epea «oso bestelakoa» izaten dela dio. «Ez dakigu zein egunetan egin dezakegun jai, ezta noiz egingo dugun lan, eta telefonoaren menpe bizi gara. Erosleek ezin dute geldirik egon guregatik, eta beraz, euren egutegira moldatu behar izaten dugu. Elurra, kazkabarra edo euria egin, lanean aritzen gara, presiopean, egunean bertarako edo hurrengo egunerako egiten dizkigutelako eskaerak. Ondorioz, nagitasuna eragiten duen ofizioa da gurea».

Lehen, landare eta zuhaitz azoketan ere jartzen zituzten postuak; orain, baina, mintegia bera da salmenta puntu bakarra. Mintegira joaten diren erosle gehienak, ordea, 55 urtetik gorako herritarrak direla esan du. «Oso tarteka, gazteren bat etortzen da, baina sektore honetan ez dago transmisiorik. Baserritarren seme-alabak orain ez dira aitzurra hartuta mendira joaten». Baserritarrekin jarraituz, lanerako beste modu batzuk topatu dituztela esan du. «Ez dute euren kabuz landatzen; norbait kontratatzen dute horretarako. Langile horiek hona etortzen dira, landarea hartu, baserrira eraman, eta bertan landatzeko. Ondorioz, baserritarrekin lehen genuen kontaktu zuzen hori galtzen ari gara», nabarmendu du.

Nafarroako, Gipuzkoarako eta Bizkairako saltzen dituzte landareak, bai bertako partikularrentzat, baita administrazioentzat ere. «Mendi publikoetan, administrazioak zenbait landaketa egiten ditu; partikularrek, ordea, ez horrenbeste». Produktuei dagokionez, kriptomeria saltzen dute gehien. «Pinuaren gaitzak, ordea, aldaketa ekarri du. Ez dakigu zein espeziek irabaziko duen apustua, badirudielako sekuoiaren garaia helduko dela. Bertako haritzari edo pagoari dagokienez, zenbakiak bestelakoak dira. Oso gutxi saltzen dira».

Krisi ezberdinak

Pandemiak eragindako krisiak kalterik ez diela eragin adierazi du mintegiko arduradunak. «Jokoz kanpo egon gara beti, eta hala jarraitzen dugu. Pinuaren gaitza eta bere eboluzioa izan da gure krisialdi nagusiena. Mendiek izurrite handia jasan dute; hori dela eta, lur zati ugari bota behar izan dituzte, eta mendiak zikinduta utziz gero, urteen poderioz, galdutzat jotzen dira eta ezin izaten da bertan landatu. Bota berritan aldatzen da, edo bestela ez da aldatzen».

Mintegiko arduradunak, halaber, baditu bestelako buruhauste batzuk, belaunaldi aldaketari lotutakoak. «Guztiok dugu gustuko mendia, baina begiraleak izan nahi dugu, inork ez du lan aktiborik egin nahi. Gure belaunaldikoen seme-alabek ere ez dute ofizio honetan aritu nahi. Landaketan edo egurra mozten aritzen direnen %90 atzerritar langilea da; gaur egun, arduradun asko ere ez dira bertakoak.

Etorkizunari dagokionez, beltzuneak ikusten ditu zuriuneen ordez. «Lanerako modua da nire ustez arazo handiena. Ekonomikoki ez dago arazorik; lana izateko ez daukagu beldurrik, baina eskulanaren falta ikaragarria da. Inor ez dago prest, eta atzerritarrengatik ez balitz, akabo. Hamar urte barru, sektorea desagertu egingo denaren aurreikuspena dut», nabarmendu du.

Gregorio Ugartemendia tolosarra. **E. M.**

«Bete egiten nau pagadiak, eta poz handia ematen dit»

GREGORIO UGARTEMENDIA
BASO JABEA

Gregorio Ugartemendia tolosarrak duela 30 urte landatu zituen lehen mila pago landareak, Bedaion; bost urtera bost mila landatu zituen.

Eneritz Maiz Etxarri

Ama zuen Bedaioko Gurbil Haundi baserrikoa Gregorio Ugartemendiak (Tolosa, 1935). Tolosako San Esteban auzoan jaioa da Ugartemendia, eta Bedaiorekin harremana izateak eraman zuen bertako lurrak erosi eta pagoak landatzera.

Zein harreman duzu Bedaiorekin?

Ama nuen Bedaiokoa, eta Gurbil Haundian maizterrak ziren. Lehengusu bat etorri zitzaigun etxea saltzera atera zela esatera, eta bera han izateko kondizioarekin guk erosiko ote genuen. Bi anaiok baietz esan genion, eta guk erosi genuen etxea.

Etxe horrek lurrak zituen?

Bai. Lur dezente zuen, hamazazpi bat hektarea ditu.

Eta nolako lurrak ziren?

Dena garbia zegoen, larre tokiak ziren batik bat. Behiak ibiltzen ziren. Zaindu egin behar izaten dira lurrak, eta orduan, landareak landatu genituen.

Eta zati batean pagoa landatzea erabaki zenuten?

Beheko zati batean dagoeneko pagoa landatua genuen, baina zati handiagoan landatu ahal izateko proiektu bat behar zela esan ziguten. Orduan, mendi elkarteko teknikaria joan zen. Behean pagoa ondo zetorrela ikusita, hark, goran ere ziurrenik pagoa ondo etorriko zela esan zigun. Eta horrela animatu ginen eta pagoa landatu genuen.

Eta nola egin zenuten landaketa?

Lehenik mila ziento, mila landare landatu genituen barruti batean.

Lan handia izango zen hori.

Bai. Langileak hartu genituen ordea. Eta handik bost urtetara, ondo zetorrela ikusita, bost mila landare gehiago landatu genituen. Guztiak itsatsi ziren eta horretan zortea izan genuen. Gerora baten bat edo beste ihartu dira baina.

Beraz, guztira sei mila pago daude.

Hor nonbait.

Nolakoa da landaketa prozesua?

Lehendabizi zuloak egin behar dira, eta oxigenatzen uzten genituen. Gero negu-neguan landatu egiten dira. Urtarrilean landatu genituela uste dut.

Landare txikia zen?

Dezenteak ziren, metro erdi bat edo gehixeago zuten.

Baina sasiak harrapatuko zituen.

Bai. Sasiak tapatu zituen batzuk. Sasiari eusten lan pixka bat izan genuen. Lurra dagoen tokian sasia segituan etortzen da.

Landatu ostean, beraz, jarraipena egin behar?

Bai. Batez ere ni aritu nintzen, baina laguntzaileak ere izaten nituen. Tartea nuen guztietan aritzen nintzen hura garbitzen. Oporretan, larunbatetan... Semeak ere asko lagundu izan zidan.

Zuek nahi baino lehenago haziko zen sasia?

Bai [barreak]. Beti zegoen sasia. Zati bat bukatzerako, berriz, bestean, baina orain ondo dago eta hori da inportantea. Orain lurra garbi-garbi dago. Eta gero inausketa egiten ere aritu gara, banan-banan adarrak kenduz, eta alturako inausketa ere bai, goiko zatian iritsitako guztia moztuz. Urteetako lana izan da.

Toki ona da beraz Bedaio aldea pagoa landatzeko.

Bai, hori esan zidan ingeniari hark, oso toki ona dela. Kare harria dago, eta kare harrian ondo etortze dela pagoa.

Nongo landarea ekarri zenuen?

Urnieta alde horretan bazuen aldundiak mintegi bat, eta handik. Landarea berez Belgikakoa zen. Han hotz gehiago egiten duela eta hemengo klima ondo eramaten duela esan ziguten.

Eta orain basoari begiratuta zer sentitzen duzu?

Bete egiten nau pagadiak, eta poz handia ematen dit. Aspaldian ez naiz joan, baina maiz joan izan naiz. Gustuko dut bisita egitea. Urte luzeetako lana izan da, baina orain oso polita dago.

Bedaio aldean zerbait esan dizute?

Hasieran ez zuten ontzat hartzen. Pinua lehenago etortzen zela eta astakeria egin izan banu bezala izan zen. Baina orain uste dut asmatu egin genuela esaten dutela. Batek esan zidan: «Pagoarekin asmatu egin dek» eta jendea orain pagadiari begira dagoela.

Oraindik ere jarraipena egiten diozu?

Bai, orain bakanketa egin behar dugu elkarrengandik gertuegi daude-eta. Basozaina eraman genuen, eta jada bakanketa egin beharra dagoela esan zigun.

Bideo bat egin duzue basoa dela eta. Nolatan?

Gure iloba Juan Luis telebistan aritzen da, eta aspalditik ari zen esan eta esan pagadia ikustera joateko gogoa zuela. Aurten izan da bere lagun batekin, eta asko gustatu zitzaion. Zerbait egin beharra zegoela esanez etorri zitzaigun. Horrela beste lagun bat bazuela drone erabiltzen duena eta... han joan ginen. Grabatu zuten, eta alabek doinu pixka bat jarri zioten.

Bertsoa ere abesten duzu. Zuk egina da?

Bai, bai. Aritzen naiz zer edo zer, eta neronek idatzi nuen. Esaten dudan moduan, beste mende bat beharko du baso heldua izateko.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko **943 65 56 95** zenbakira deitu, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa Ataria-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

JON ANDER GALARRAGA
BIOLOGOA

Katuzarkeriak

Gure etxean bi motatako katuak bereizten ditugu. Lehena, katu arrunta eta betikoa da, katu polita, ile distiratsu eta leuna duena, aurpegi pottoloarekin, begi haundiekin eta «miau» goxo bat egiten duena. Denok etxera eramango genukeen katutxo polita!

Baina bada beste katu mota bat, gure etxean «katuzarra» deritzona, eta behin baino gehiagotan topatu izan garena berarekin. Katuzarra, urte dezenteko katua da, esperientzia duen katua. Ile latza du, argala da, mutur luzea du, beti ezkutuan dabil katuzarkeriak egiten, eta gutxien espero dugunean auto baten azpitik lasterka ziztu bizian irteten da berebiziko atzazal soinua ateraz asfaltoaren gainean. Batzuetan katuzarrak ez du ihes egiten... zoko batetik burua atera eta guri zorrotz begira geratzen da, katuzar begi horiekin, urteetako bizitza gogorra islatzen duten begi horiekin...

Katuzarrak ez du pentsua edo etxeko katuen zizka-mizka gozorik jaten, katuzarrak edukiontzi barreneko hondakinak jaten ditu eta erdi usteldua dagoen oilasko bular zatia, gogotsu defendatuko du bere katuzar marruekin. Gure etxeko katua suziri batekin aztoratu egiten den heinean, katuzarrak martxan dauden kamioien motorrean igarotzen du gaua. Eguerdiko siesta zalea dugu gure katuzarra, baina katuzarrak ez du siesta sofa bigun batean egiten, katuzarrak siesta asfalto beroaren gainean egiten du, begi bat erdi irekita duela. Katuzarra bizirauten espezialista da, gosearen funanbulista, heriotzaren trapezista eta arazo larri bat gaur egun gure inguruko faunarentzat.

Imajina dezagun katuzar arrunt bat bere egunerokoan, katuzar honi, Felix deituko diogu. Felix gure katuzarra, Tolosaldeko herri txiki bateko etxe batean bizi da. Etxe honetako jabeek Felix etxezuloan triste ikusita, atean katuentzako atetxo bat eraiki dute, Felix nahi duenean irten eta sar dadin. Gainera, Felix kanpoko birusetik babesteko, beharrezko txertoak ipini dizkiote eta galdu ez dadin, txip bat jarri diote lepo atzean. Felix etxe-katua prest dago mundua ezagutzeko.

> Katuzarrak edukiontzi barreneko hondakinak jaten ditu eta erdi usteldua dagoen oilasko bular zatia, gogotsu defendatuko du bere katuzar marruekin

Hasiera batean gure Felixi ez zaio ate madarikatu hura atsegin, mugitu egiten da eta beste aldean, etxeko lasaitasunetik urrun dagoen mundu zaratatsu bat ikusten da. Baina Felix katu bat da eta bere odolean, milioika urtetan zehar garatu duen harrapariaren sena darama eta senak bultzatuta kanpora irten da. Kanpoan Felixek mundu berri bat ikusi du, sofa, telebista, janari ontzia eta iturrietako uraz aparte, mundu ikaragarri

bat deskubritu du. Aukeraz betetako mundu honetan murgildu da eta pareta batean, sekula ikusi duen tximeleta handi bat ikusi du geldirik. Felixek, bere katutasunari so eginez, jauzi batean ehizatu du eta ehizatzea zer den deskubritu du, eta ehizatzea ona dela ikusi du. Tximeleta handi bat, sugandila txiki bat, sagutxo ertain bat, hormatxori bat, txepetx habia bat, musker berde bat, xoxo beltz bat...

Katuzar guztien modura, Felix ez da gose, Felixek bere jabeen etxean sabela ederki betetzen du egunero, beraz bere ehizaren helburua ez da egunero bizirautea. Felixentzat ehizatzea ez da kontu handiz egin beharreko energia gastu zehatz eta neurtu bat, Felixek energia soberan baitu ematen dioten katupentsuagatik, ehizatzea jolasa da berarentzat. Horregatik Felix katuzar berriak ez du egunean bizitzekoa ehizatzen, parean jartzen zaion edozein animalia basatik ehizatzen du, hegazti, sagu edo intsektu. Nahi adina saiakera egin ditzake, egun osoa du horretarako, hormatxori bat ehizatzera joan eta honek ihes egin diola? Lasai, aurrerago satitsu bat topatuko du, eta azken hau ere ez badu ehizatzea lortzen... beste batean izango da. Gainera Felix ez ehizatzera oso urrun joango, kale bat edo bi aurrerago joango da, hori bai, kale hauek bizidunez erabat soilduta utziko ditu gure katuzarrak

2014an egindako Espezie Inbaditzaileen Aditu Taldeak egindako ikerketa batean, katuak munduko ehun espezie inbaditzaile arriskutsuen taldean sartu zituzten, horrez gain, Erresuma Batuan egin zen beste ikerketa batek zioenez, katuek urtean 60 milioi ugaztun txiki eta 27 milioi hegaztien heriotzaren errudun dira. Ameriketako Estatu Batuetan, fauna basatiaren desagerpenaren eragile nagusitzat hartu dira kale katuak, eraikinetako kristal, trafikoagatik izandako heriotza eta pozoiaren gainetik, beraz broma gutxi katuekin!

Zuen etxean etxe-katu bat baduzue beraz, jarrai dezala etxe-katua izaten, behin katuzarra bihurtzen bada ez baitago atzera bueltarik.

PREBENTZIORIK GARRANTZITSUENA HITZ EGITEA DA

Gizartean hainbat tabu daude, eta horietako bat da suizidioa. Gai bat lantzeko baina, beharrezkoa da horri buruz hitz egitea, arazoari heltzea. Eta horretan ari dira Inmakulada Lanbide Ikastolan, suizidioa prebenitzeko proiektu batean murgilduta.

Imanol Garcia Landa

Aurreko ikasturtean Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola eta Donostiako Easo Politeknikoa ikastetxea suizidioaren gaia lantzen hasi ziren, elkarlanean proiektu bat martxan jarriz. Abiapuntua COVID-19aren inguruko konfinamenduak eta beste neurriek nerabeen osasun mentalean zer eragin izan zezaketen ikustea izan zen. Horretarako Tolosaldean zein Donostialdean milatik gora ikasleri galdetegi bat pasatu zieten, ikusteko zer-nolako eragina izan zuen depresioan, antsietatean, loaren asalduran eta adikzioetan, eta suizidioaren inguruan ere galdetu zuten. Emaitzek erakutsi zieten denetan eragina izan zuela, eta bazeudela ikasleak suizidioaren inguruan pentsatu izan zutenak, planifikaziora iritsi eta saiakerak ere izan zirela. «Hori horrela, ikusi genuen lan asko zegoela egiteko», esan du Enara Larrain Inmakulada Lanbide Ikastolako irakasleak. «Hurrengo pausoa esku hartzea izan zen: tailerrak sortu genituen ikasleekin, osasun mentala eta erresilientzia lantzeko, depresioa eta antsietatea prebenitzeko, adimen emozionala lantzeko, eta horien inguruan gida batzuk ere osatu dira».

Bide horretan, Biziraun elkartearekin (Maite dugun norbaiten suizidioak mindutako pertsonen elkartea) harremanetan jarri ziren. Suizidioaren prebentziorako proiektu indartsu bat egin nahi zuten, eta ikasturte honetan horri heltzea pentsatu zuten. Besteak beste, aurreko urteko maiatzean sentsibilizazio saioa egin zuten Gizarte Integrazioko ikasleekin eta bertan Laura de la Iglesia ikasleak parte hartu zuen. Bere buruaz beste egiten saiatu zen eta horren lekukotza eman zuen, eta berarekin batera Bizirauneko kide batek parte hartu zuen. Horrez gain, Inmakulada eta Easo ikastetxeen artean suizidioaren prebentzioaren protokolo bat egiten ari dira. Komikiak, bideoak eta abar sortu nahi dituzte ere.

Proiektuaren barruan ere sozializazio espazioak ari dira sortzen. Bi ikastetxeetan batzar bana jarri dute martxan, osasun mentala eta suizidioa lantzeko. «Ikasleak libre eta eroso sentitzeko espazio bat izatea nahi dugu, dituzten kezka eta emozio guzti horiez hitz egiteko», azaldu du Larrainek. «Bizi garen gizartean erakutsi digute oso ondo dagoela gure emozio positiboak adieraztea, baina emozio negatiboak hobe direla barnean uztea, deserosoak direlako. Eta hori ez da horrela, hitz egin beharra dago, eta

Laura de la Iglesia eta Enara Larrain. **I. G.L.**

suizidioaren prebentziorako gauza garrantzitsuena hori da. Emozioak atera, hitz egin, laguntza eskatu, eta norbait izan ondoan eta espazio bat izan non seguru sentitzen zaren, eta ez zaren epaitua izango».

Harreman motak

COVID-19arekin sortutako egoerak arazoa azaleratu egin duela dio Larrainek, baina aurretik ere bazegoela, eta harreman motak daudela horren oinarrian. «Sare sozialak oso ondo daude, baina egia da nerabe eta gazteen artean harremanak oso azalekoak direla. Gehienetan erakusten dutena Instagramen eta beste sare sozialetan ez da egia: zoriontsu daudela, denak oso ondo eramaten direla... Baina azkenean bakoitzaren barruan zer dago? Eta zuk ikusten badituzu beste guztiak zer zoriontsu diren, nola ikusten zara zu bakardade horretan?», egin du galdera Larrainek. Askotan ikasleek ez dutela zeinekin hitz egin gaineratu du. «Oso garrantzitsua da erreminta horiek ematea, bere emozioak ulertzeko eta transmititzeko, eta baita besteenak ere identifikatzeko».

Nerabe eta gazteekin ari dira lanean proiektuan, baina jakitun dira ez dela adin tarte horretako kontua bakarrik. Hamabost urte baino gutxiagokoetan, ehuneko ehunean igo dira suizidioarengatik gertatutako heriotzak. «Ez da nerabe eta gazteen arazoa, hori lehenagotik dator. Prebentzioa Haur Hezkuntzatik hasi behar dela diote, eta emozioen lanketan», esan du Larrainek. Bestalde, suizidioaz hiltzen direnen artean portzentaje altu bat dago 79 urte baino gehiagokoetan. Adin horretan bakardadeak zeresan handia izan dezakeela gaineratu du Larrainek.

Bi ikastetxeak lantzen ari diren protokoloan, saiakera bat egon denean edota suizidioarengatik heriotza bat gertatu denean, nola jokatu aztertzen dute. Askotan isildu egiten da gaia, eta horrek ikasleak beraien artean hitz egitea ekartzen du, eta hortik morbositatera heltzen da. «Horregatik isiltasun horrekin apurtu egin behar da, hitz egin», esan du Inmakulada ikastetxeko irakasleak. «Prebentzioan sentsibilitatea oso garrantzitsua da. Hezkuntza komunitatean dauden guztiak benetan sentsibilizatu behar dira arazo bat daukagulaz. Prebentzio garrantzitsuena hitz egitea da, eta beldur hori kendu behar dugu».

Inmakulada Ikastolan maiatzean egindako sentsibilizazio saioa.

Suizidioaren gaia gizarte osoaren arazoa dela azaleratu nahi dute proiektuarekin. Datuak eman dituzte hori adierazteko: 2020an, 800.000 pertsona hil dira suizidioarengatik mundu osoan, gerrengatik eta homizidioengatik baino gehiago. 40 segundoro heriotza bat izan da suizidioarengatik, eta bi segundoz behin saiakera bat izaten da. «Askotan hitz egiten da trafikoarengatik-eta hiltzen diren pertsonak, eta horren inguruan egin dira kanpainak, baina non daude suizidioaren inguruko kanpainak?», galdegin du Larrainek. Zer edo zer mugitzen ari dela gaineratu du, baina espero duela horretan ez geratzea: «Lan asko egin behar da eta errekurtsoak behar dira. Sentsibilizazioa behar da, pertsonek benetan parte hartzea. Hau guztion arazoa da, ez bakar batzuena».

Tabuekin hautsi

Gizartean oraindik mito asko daude suizidioaren inguruan errealak ez direnak. «Jende gehienak suizidioaren inguruan ez du hitz egin nahi, eta nik ulertzen dut, ez delako gai erraza. Jendea oso deseroso sentitzen da», esan du Larrainek. Baina gero ezustekoak ere jaso ditu gelan gaia lantzerakoan: «Modu natural batean hitz egiten baduzu, beldur gabe eta tabu gabe, ikasleak ere animatzen dira hitz egitera, eta irekitzen dira. Inguruan ere berdina ikusi dut». Laura de la Iglesiak gaineratu duenez, «ikusi dut suizidio hitzak berak bakarrik beldur asko ematen duela. Denbora askoan isilik egon nintzen, pentsatzen nuelako egin nuen saiakera hori gaizki zegoela. Errudun sentitzen nintzen, eta Enarak eman zidan aukera niri gertatutakoaz hitz egiteko. Lehenengoz kontatu nion pertsona Enara izan zen eta bere erreakzioa oso normala izan zen, eta niri horrek lasaitu egin ninduen». Proiektuarekin tabu horrekin hautsi nahi dutela dio de la Iglesiak, eta jendeak lasaitasunez hitz egitea: «Beldurrarengatik erakutsi digute zerbait txarra bezala dela eta ezin dugula horretaz hitz egin, epaituak sentiarazten gaituztelako. Uste dut gizarteak begirada hori aldatu egin behar duela».

> «[Suizidioaz] modu natural batean hitz egiten baduzu, beldur gabe eta tabu gabe, ikasleak ere animatzen dira hitz egitera»
> **Enara Larrain**

Komunikabideek gaia nola jorratzen duten aztertzean, isiltzen den arazoa ez dela desagertzen, handiagoa egiten dela zehaztu du Larrainek. «Emozio negatibo bat zuretzako gordetzen baduzu, ez da desagertuko, handiagoa egingo da, eta berdin gertatzen da suizidioarekin». Komunikabideetan aurrerapauso batzuk izaten ari direla gaineratu du, eta Veronica Forque aktore espainiarraren kasuarekin ikusi dela dio. «Komunikabide batzuk ezkutatu egin zuten heriotza suizidioarengatik izan zela. Beste batzuk moduarekin geratu ziren, morbositatearekin. Beste batzuk ondo egin dute, azalduz nola iritsi den horretara, nola sentitzen zen, zer izan den testuingurua, laguntza eskatu duen edo ez... Eta horrek balio du prebentziorako».

Horren harira, Laura de la Iglesiarekin izandako hizketaldia ekarri du gogora: «Kontatu zidanean sui-

zidatzen saiatu zela, nik ez nion galdetu nola egin zuen. Esan nion lasai egoteko, ea nola zegoen galdetu nion, eta berak esan zidan nola sentitzen zen. Hori da garrantzitsua, emozioak, nola sentitzen den pertsona. Kasuak benetan ez badira isiltzen, eta ondo lantzen badira, hori da prebentzio onena». De la Iglesiak bere lekukotza eman duenetik, jende askok badaki bere kasuaren berri. «Pertsona batzuk galdetu didate nola egin nuen saiakera, eta nik erantzuten diet ea hori den benetan inporta zaiena. Gero konturatzen naiz Enara bezalako pertsona asko daudela, galdetzen didatenak ea nola nagoen eta momentu horretan nola nengoen. Hori da benetan lasaitasuna ematen dizutenak, beraien laguntza eskaintzen dutenak».

Arrazoi ugari

Suizidioa osasun mentalarekin lotzea beste mito bat dela diote. «Suizidioa osasun mentaleko arazoekin lotu izan da, baina pertsona asko daude bere buruaz beste egiten dutenak beste arazo batzuengatik: bere familian arazo bat dagoelako, lanean edo eskolan bullyinga jasotzen dutelako...», esan du de la Iglesiak. «Suizidioz hiltzen direnak edo saiakera egiten dutenak ez dutelako sufritu nahi egiten dute, bere bizitzan sentimendu hori dagoelako». Suizidioa eta osasun mentala lotzeak gizarteari lasaitasuna ematen diola gaineratu du Larrainek: «'Depresioa zuen eta horregatik egin du, eta nik depresiorik ez dudan bitartean lasai nago', pentsatu dezake jendeak. Baina ez da horrela, eta kontuan izan behar da gaiaren inguruan dauden estigmak. Osasun mentalean sekulako estigma egon da, ezjakintasun handia izan da. Eta suizidioarekin berdina. Suizidioz hiltzera iristeko, arrazoi pila bat egon daitezke: bullyinga jasatea, indarkeria matxista... Horregatik garrantzitsua da jakitea zergatik iritsi den norbait horretara, eta hori prebenitzea».

Oro har ikasleekin irakasleek egin dezaketen lana nabarmendu du Larrainek: «Beldur asko dago askotan ikasleen munduan sartzeko, baina zer garrantzitsua den identifikatzea ikasle bat gaizki dagoenean eta ematea konfiantza eta espazioa bere egoera kontatzeko, eta ikusteko gu ere hor gaudela. Behar handia dute hitz egiteko, eta hori ere gure lana da». De la Iglesiarekin sortu duten harreman berezia aipatu du: «Laura nire ikaslea zen eta orain nire laguna da. Oso islatuta sentitzen nintzen beregan eta uste dut berari berdina gertatu zitzaiola, eta harreman berezi bat dugu». Bide batez, de la Iglesiak bere kasua publikoki kontatzeak izan duen garrantzia azpimarratu du: «Jendea askok pentsatzen du suizidio saiakera bat egiteko ahula izan behar duzula, eta hori ez da horrela. Laurari ikusten zaio zein indartsua den. Ahuldade batean edonor egon gaitezke, eta asko gustatzen zait horrekin haustea. Bere lekukotasunaren ondorioz, Ikastolan beste ikasleek euren artean hitz egin dute, eta berarengana hurbildu dira. Orduan ez da bakarrik publikoki egin duen testigantza, baizik gero ahoz aho nola joan den zabaltzen, eta horrek prebentzioaren aldetik suposatu duen guztia». De la Iglesiak «aldaketa izugarria» eman duela gaineratu du Larrainek, eta hori bizitzea berarentzat gertatu zaion «gauza berezienetako bat» izan dela. «Eta nahiko nuke hori adierazi beste irakasleei: zer polita den hau. Benetan zeregin horretan sartzeko, gure lana ere hau badela, eta guk asko dugula prebentzioan egiteko».

«Niri laguntzen dit eta indartsu sentitzen naiz»

LAURA DE LA IGLESIA
BERE SUIZIDIO SAIAKERARI BURUZKO LEKUKOTZA EMATEN DUEN GAZTEA

Ez zaio erraza egin bere kasua azaltzea, baina behin hitz egin duenean, aurrera egiteko gogo gehiago du. Suizidioaz hitz egitea beharrezkoa dela ikusten du, tabuak apurtzea, eta bera egiten ari den bidea besteentzat baliagarria izan daitekeela ikusten du.

I. Garcia Landa

Pauso garrantzitsua eman du Laura de la Iglesiak (Ibarra, 1999), Inmakulada Lanbide Ikastolak martxan jarri duen proiektuan bere lekukotasuna emanez. Orain bost urte inguru bere buruaz beste egiten saiatu zen, eta horri buruz hitz egin du, besteak beste, ikasle den Inmakulada Lanbide Ikastolan bertan. Berari lagundu dio ezkutuan zuena azaltzen, indartsuagoa egin duela azaldu du, eta espero du egoera horretan egon daitezkeenentzat lagungarria izatea bere testigantza ematea.

Nolatan animatu zinen zure kasuari buruz hitz egitera?

Aurreko ikasturtean, eskolan proba pilotu moduko bat egin zen, proiektua aurkezteko. Niri Enarak [Larrain] esan zidan ea animatuko ote nintzen parte hartzera, berak nire kasua oraindik ezagutu gabe. Ikasle baten ikuspuntua ematea zen asmoa. Egun batean berarekin eseri nintzen hitz egitera, eta esan nion nire buruaz beste egiten saiatu nintzela. Lehenengoz kontatzen nuen aldia zen, Enarari kontatu nion, eta bere erreakzioa oso normala izan zen, eta niri horrek lasaitu egin ninduen. Ez zidan aurpegi arraro batekin begiratu ezta epaitu ere. Esan zidan lasai egoteko, normala zela eta jende askori gertatzen zaiola.

Denbora pasa ondoren, Enarak galdetu zidan ea nire kasua kontatzera animatuko ote nintzen, ez morbositate hori emateko, nik ez baitut behin ere azaldu zer saiakera mota egin nuen, baizik azaltzea nola sentitzen nintzen eta nola iritsi nintzen puntu horretara. Enarak eskutik heldu zidan eta esan zidan batera joango ginela bide honetatik.

Nik hasieran beldur pixka bat nuen, bost urtez isilik egon nintzelako. Baina pentsatu nuen nire unea zela, eta uste nuen aukera hau ematen bazidaten hartu egin behar nuela. Niretzako ere gai tabu bat zen, ez nuelako horri buruz inoiz hitz egiten. Une horretan, Enarak esan zidanean ea animatuko nintzatekeen, baiezkoa esan nuen, eta nahiz eta beldur pixka bat izan, aurrera jarraitu nuen, motxila hori gainetik kentzeko.

Zer kontatzen duzu?

Ikusten dira sufritu duten senideak pertsona bat hil

denean suizidioarengatik, baina ez zaio ikusgarritasun hori ematen saiakera egin duen pertsona bati. Eta nik uste dut horrek ere besteei lagunduko diela, pertsona asko daudelako ni bezala, saiakera egin dutenak. Baina ez dira ausartzen hitz egitera, eta uste dut nik hitz egiteak beste horiei lasaitasuna emango diela, konturatzen baitira ez daudela bakarrik. Ni askotan arraro sentitu naiz, neure buruari galdetzen nion nolatan egin nuen hori; oso gaizki nengoen, eta erruduntasun hori nuen, nire familiari mina egin diodala pentsatuz. Gaixotasun bat nuen, konplikatu egin zen, eta saiakera hori egin nuen. Baina garrantzitsuena da orain non eta nola nagoen, eta nik honekin nahi dudana da besteei laguntzea.

Zertan laguntzen dizu zuri?

Hasieran beldur pixka bat nuen, eta jendeak zer pentsatuko ote zuen galdetzen nion neure buruari. Enarak lasaitasun handia eman zidan, eta pentsatzen nuen nire momentua zela. Niri asko laguntzen dit pertsonalki. Bost urtez isilik egon naiz, eta nire gainetik pisu handi bat kentzen dut. Hitz egitea suizidioaz, orokorrean, pila bat laguntzen dit lasaitzen, konturatzen naizelako ez dudala ezer txarrik egin. Nik egin dudana pertsona askok egin dute, eta ez nago bakarrik. Niri laguntzen dit, eta indartsu sentitzen naiz. Lehen norbait entzuten banuen suizidioaz hitz egiten edo albisteak entzuten banituen, oso gaizki sentitzen nintzen, tripako mina jartzen zitzaidan eta negargura handia. Orain beste ikuspuntu batetik be-

«Niri asko laguntzen dit pertsonalki. Bost urtez isilik egon naiz, eta nire gainetik pisu handi bat kentzen dut»

giratzen dut. Niri asko lagundu dit pertsonalki honetaz hitz egitea, hortaz badakit beste pertsonei ere lagunduko diodala. Pentsatzen dut ikusgarritasuna emanez dagoeneko lagundu egingo dudala, eta horrek berak niri ere asko laguntzen dit.

Lekukotasuna zenbat aldiz eman ahal izan duzu?

Aurreko urtean hasi nintzen. Biziraun elkarteko Eva Bilbao eta Agustin Erkiziarekin, eta Enararekin, lehenengoz azaldu nuen. Gero, Inmakulada ikastetxean, gizarte zikloan. Pixka bat zailagoa egin zitzaidan bigarrengo aldian, nire adineko pertsona gehiago zeudelako eta pentsatzen nuelako ea beraiek zer pentsatuko ote zuten nitaz. Baina gustura aurkitu nintzen, eta beraien erantzunak ikusita, gustura sentitu nintzen. Uda honetan izango dut mahai inguru batean hitz egiteko aukera. Pixkanaka aurrera noa, eta uste dut denbora pasa ahala, eta gauza gehiago egiten jarraitzen badut, indartsuago egongo naizela.

Gertukoek nola ikusten dute zuk zure kasua kontatzea?

Nire familiari oso zaila egin zaio, hasieratik, eta ulertzen dut beraiek ere gaizki pasa dutela. Ez da erraza beraientzat. Nik badakit niretzat ez dela erraza, baina beraientzat gutxiago. Uste dut oso ezberdina dela. Sufrimendu bat da, bai niretzat eta bai beraientzat, eta erabaki genuen estaltzea eta isiltzea, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Sentsazio horrekin egon gara denbora askoan, eta ni hasi naizenean proiektu honetan, egia da nire familiak beldur pixka bat bazuela. Jendeak zer pentsatuko ote zuen baino gehiago, nire amak adibidez beldurra zuen ea niri mina egin ziezadaketen. Nire amak asko babesten nau. Nik beti esaten dut nire amak bizitza salbatu didala alor guztietan. Gaizki egoten hasi nintzenetik gaur egun arte, nire ama beti nirekin dago. Batzuetan bai sentitzen nuela nekea, bakean uzteko esaten nion, baina orain pila bat eskertzen diot, nire ama egunero egon delako nire ondoan. Badakit berarentzako ez dela erraza, baina berdin saiatzen da ondoan egoten.

Ulertzen dut beraientzako zaila dela, eta nire mutilarentzako ere zaila da. Beraiek ulertu behar dute nik hitz egin nahi dudala eta nik ulertu behar dut agian beraien momentua ez dela orain; iritsiko da bere momentua iritsi behar denean, eta nik hori errespetatu egin behar dut, beraiek ni errespetatu nauten moduan. Espazio hori utzi behar diet, eta ikusten dut nire familia oso indartsua dela. Ni entzutea etxean gai honetaz hitz egiten, hori bakarrik beraientzako zaila da, eta ni oso eskertuta nago nire familiari, bai nire ahizpa, nire ama eta niri aitari nire ondoan egoteagatik. Badakit zaila dela, baina beti esfortzua egiten dute nire ondoan egoteagatik.

«[Gertukoek] ulertu behar dute nik hitz egin nahi dudala eta nik ulertu behar dut agian beraien momentua ez dela orain»

Aukera izan duzu suizidatzeko saiakera egin duten beste pertsona batzuekin hitz egiteko?

Oraindik ez dut ezagutu saiakera egin duen pertsonarik. Bai gertatu zait zenbait pertsona etortzea eta esatea, niri entzun eta gero, ideiak izan dituztela edo saiakera egin dutela, eta esaten didate ni entzuteak lagundu egin diela. Ni pixkana prestatzen ari naiz, eta oraindik ez dakit zer edo nola esan. Nik nire bizipena kontatzea daukat, baina askotan kezka dut esango diedana egokiena den edo ez. Beraiek ikustea ni orain ondo nagoela, pozik nagoela, eta hemen nagoela hori pasa eta gero, lagundu egingo diela uste dut. Nik nahi dudana da beraiek ikustea beti dagoela irtenbide bat, eta laguntza eskatu behar dutela. Nire bidean laguntza eskatu dut.

Aurreko urtean, Enarari kontatu nionean ni oso gaizki nengoen. Berak esan zaidan laguntza profesionala behar nuela eta berarengatik hasi nintzen, eta egun jarraitzen dut. Oso eskertuta nago, betidanik lagundu didaten profesional guztiei; uste dut gauza garrantzitsua dela laguntza hori jasotzea, baina uste dut garrantzitsuagoa dela jakitea arazo bat duzula, eta laguntza eskatu behar dela. Pauso oso handia dago arazo bat duzula jakitetik, pertsona askok badakitelako arazo hori daukatela, laguntza eskatzera. Nik nire familiarengandik eta Enararengandik laguntza jaso dut, eta ni gaizki nengoenean laguntza eskatu dut. Hori da garrantzitsuena, laguntza eskatzea, eta zure ondoan beti esku bat izatea indartsu heltzeko, eta gaizki zauden momentuetan jakitea ez zaudela bakarrik.

Inmakuladan egiten den proiektua zer iruditzen zaizu?

Pixkana hasi gara, baina iruditzen zait izugarria dela. Uste dut oso leku gutxitan ikusten den zerbait dela. Pertsona askori laguntzen ari dira. Ni aurreko urtean hasi nintzen honekin, eta indar asko eman didate. Eta uste dut honekin aurrera jarraitu ahala, zerbait oso berezia izango dela. Niri asko laguntzen dit, indarra ematen didalako egunero aurrera jarraitzeko, ikusteko ez nagoela bakarrik, zerbait normala dela. Tabu hori hautsi nahi dugunez, lagundu egiten didate prestatzen eta tabu horrekin hausten. Eta uste dut proiektu hau beharrezkoa dela.

Zer beste mezu eman nahiko zenuke?

Orokorrean jendeari esan nahi diot, egoera txar batean baldin badaude, laguntza eskatzeko. Ez pentsatzeko bakarrik daudela. Beraien familiekin ez badira ausartzen hitz egitera, askotan babes hori izatea zaila dela ikusten badute, ondoan dituzten beste pertsona batzuekin hitz egiteko. Eskolan bullyingaedo jasaten badute, irakasleekin hitz egiteko. Irakasleek asko laguntzen dute, eta nik zortea izan nuen aurreko urtean Enararekin. Baina benetan esaten diet ez daudela bakarrik. Denetatik atera egiten dela, eta beti laguntza eskatzeko.

«Jendeari esan nahi diot, egoera txar batean baldin badaude, laguntza eskatzeko; ez pentsatzeko bakarrik daudela»

XABIER TELLERIA
GALTZAUNDIKO KIDEA

Euskara eta politika

Euskarak eman digu albisterik Tolosan 2021ean.

Batetik, Euskararen Aholku Kontseiluaren sorrera, orain 35 urte baino gehiago sortutako Udaleko Euskara Batzordearen lekua betetzera datorrena, izan ere batzorde horrek azken aldi luzean galdua baitzuen izaera hori. Gure udalerrian euskararekin eta bere zabalkundearekin zerikusia duten eragile nagusiak ordezkatuta daude kontseilu horretan.

Eta Euskararen Aholku Kontseiluaren eskutik iritsi zaigu, halaber, bigarren berri ona: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2022-2024. Aurreko planaren (2015-2019) ebaluazioarekin batera, ez da falta datozen urteotarako asmorik, plangintzarik eta proiekturik. Badago nora begiratu.

Aurreko plangintzaren ebaluazioari erreparatuta, badago datu bat atentzioa eman didana, Siadecok 2019an egindako ikerketa batetik aterata. Euskararen erabilera areagotzeko behar diren faktoreen artean, gutxien aipatutakoa «gaia ez politizatzea» izan da. Uler bedi, alderdi politikoen artean xextrarako edo, beste modura, inork gaiarekin etekin politikorik lortzeko ez erabiltzea. Eta gutxi aipatze horrek adierazten du inork gutxik jartzen duela zalantzan gure kasuan euskarak aurrera egin badu eta aurrera egingo badu, euskarak politika behar duela hizkuntza politikak beharrezkoak diren neurrian.

> Euskararen erabilera areagotzeko behar diren faktoreen artean, gutxien aipatutako «gaia ez politizatzea» izan da

Eta esango nuke, nahi gabe ere, alderdi politikoen arteko sesiotik nekez libratuko garela, ikusita gure inguruko hizkuntza hegemonikoen alde bezala euskararen aurka makinaria judiziala martxan jarrita daukaten estatuek nola jokatzen duten. Frantziako Estatuak mugak jarri dizkio hezkuntza arloko murgiltze sistemari, eta Pirinioetatik hegora ere, katalanaren gehiegizko zabalkundearekin tematuta dagoenik ere ez da falta, gobernuek (kasu honetan Generalitateak) eta legebiltzarrek kontsentsuz lortutako akordioak eta urteetan aplikatutako praxiari oztopoak jartzeko. Bulkada politiko hutsez jardunda; gutxiengo baten bulkadaz; estatuen aparatu judizialaren oldarraz.

Ongi etorriak planak eta asmoak. Bide orriak komenigarriak ez ezik, ezinbestekoak bihurtzen dira kontsentsuz adostutakoak norabide jakinean burutzeko. Baina orain gutxi katalan kualifikatu batzuek idatzitako artikuluan adierazi bezala, maila guztietako gobernu eta legebiltzarrek izan behar dute gure hizkuntzaren lehen babes lerroa arlo guztietan. Badago horren beharrik, eta aurrerantzean behar handiagoa izatea ezin baztertuko zerbait da. Oker bageunde!

JOSU OZAITA
KMK
KOORDINAZIOA

Auzolana 2.0

AUZOLANGIN(L)TZA: XXI. mendeko Gipuzkoaren eraikuntzan auzolana iraganeko kontua ala etorkizuneko giltza: Tolosaldean saiakera» izenburu pean, Tolomendik jardunaldi polita burutu zuen udan. Harrezkero, auzolan hitza entzutean, klik bat pizten zait barnean. Zer da auzolana?

Makina bat aldiz entzuten dugun hitza da. Historikoki, irudi bat datorkigu burura: landa eremuko bizilagunak elkartuta, taldearentzat onuragarri ziren jarduerak burutzen; erabiltzen zituzten bideak konpondu eta garbitzen, esaterako. Azkenaldian, maiz ikusi eta entzuten dugu ere, marketin esamolde moduan. Baina hori ez da auzolana, baizik eta hitzak berak sinbolikoki iruditerian duen pisua erabiltzea, edozein ekintza edo ekimen panpoxago egiteko. Izan ere, euskal identitatearen osagai bat da auzolana, eta honek, gure balioetan eragina du. Hau dela eta, ezinbestekoa da auzolanaren inguruan pentsatzea. Batetik, folklorizaturik hiltzeko arriskua duelako, eta bestetik, funtsik gabe erabiliz gero, kontzeptu huts batean galdu daitekeelako.

Auzolan kontzeptua birdifinitu beharra dago, eta zentzu honetan txalotu Tolomendiren saiakera. Honenbestez, definitu beharra dago, baina ez esanahi itxi batean. Auzolanak ateak ireki diezazkiokeelako herrigintzako hainbat lani, herriko jaiak antolatzeko batzordeei adibidez, eta balioa zein ikusgarritasuna eman ekintza eta pertsona zehatzei, eta honek berarekin, hainbat aldaketa ekar ditzake, indar eta eskulanez gain, bestelako boluntario lanei garrantzia eman, kasu.

Nahiz eta auzolana idealizatu dugun, kontuan izan behar dugu gizonen lanean jarri izan dela fokua askotan, indarrari lotuta. Eta erromantiko ikuspegia eman badiogu ere, bolondres lana izan bada ere, presio soziala ere egon da bere baitan, behartze ikusezin bat.

Auzolan indartsuak ere egiten dira gaur egun: 150 lagun auzolanean urte osoan ariko dira Ibarrako Kilometroak jaian, ehunka egunean bertan, eta auzolan horretan parte hartzeak, euskara, ikastola eta Euskal Herriarekiko atxikimendu handiago sortzea ekarriko du. Eguneratzen ere saiatuko gara, elkar-zaintza eta girotze lana sartu beharko ditugu kontzeptu berrituan, eta auzolana parekideago izateko lan egin.

XXI. mende honetan auzolanak badu foklorizaturik hiltzeko arriskua. Auzolana biziko bada, berritu egin beharko du; gaurkotu. Eta benetako auzolanei, auzolan izena eman.

Ziurtagiria edo segregazioa

ION MINTEGIAGA 'MINDE'
LANGILEA

Sentibera gaude. Bi urtez senide eta lagunak gaixotzen eta hiltzen ikusi ditugu. Salbuespeneko neurriekin bizi gara. Eta gaixotasunik arruntenak gain-medikazio nabarmenaz artatzen diren sasoian, txertoengan jarri zen fedea. %70ean kokatu zen talde immunitatea. 80ra eta 90era ere iritsi da gurean, baina irtenbiderik ez. Errudunak behar: ez txertatuok.

Estigmatizazioak bere bidea egin du «negazionista» adieraren eskutik. Lur Lauan sinisten dugula, xamanismoan. Horko gutxieste, irain eta *memeak*. Sarean nahiz komunikabideetan, ezker-eskuin.

Lurra ereinda zegoen. COVID ziurtagiria, segregazioa; jende askoren babesarekin. Bertigoa. Gure lagun, senide eta lankideek ez ote gaituzte aldamenean nahi?

Jende arruntaren partetik sumatu da elkartasuna, konplizitatea. Ezkerreko mugimenduetatik gutxi. Kontrara, indibidualismoa eta ultraeskuina hauspotzea leporatzen zaigu; mingarria.

Ziurtagiriaren aurka garbi agertu diren eragileak kontatuak izan dira: LAB sindikatua, Mugimendu Sozialistako gazteak eta Bizitza plataforma; Iparraldean EH Bai. Bakoitza bere ñabardurekin.

Borroka politiko kolektibo baten parte izateagatik espetxean nintzela hasi nintzen gehienbat osasunean arreta jartzen. Medikazioa legezko droga gisara erruz erabiltzen zen. Tabakoa utzi nuen. Gose grebak hobeto prestatzen nituen denborarekin.

Kalean gaixotu izan naizenean nahiago izan dut arin jan, atseden hartu eta gorputzari denbora eman. Ulertzen dut noski minaren eraginez medikatzea. Gaixotasun larriren bat sentituko banu, osasun publikora joateko erreparorik ez nuke izango, diagnostikoa jaso, kontrastatu eta beren eskuetan geratzeko. Langileen maila profesionala eta humanoa aparta da.

Baina txertoek ez naute konbentzitzen. Gorputza prebentiboki kanpotik gaixotzeak balizko gaixotasun handiago bat ekiditeko errespetua ematen dit. Izatekotan, COVIDaren aurkakoekin izan dut zalantza gehien, izurria naturalki apaldu artean leungarri gisa izan daitekeelakoan. Babes bat eragiten dutela onarturik, komunikabideen alderaketa handiak xehatu, lerro artean irakurri, albo-kalteak eta osotasuna kontutan hartuta, erabakian berresten jarraitzen dut, are gehiago gabon bezperako leherketa eta aldaeren joera ikusita; labur.

Ziurtagiriaren aldekoei osasun argudioak uxatu zaizkielakoan nago. Baina afera ez doa hortaz. Osasungintza publiko eta integrala da gakoetako bat, ez bakarra.

Lurra ereinda zegoen. COVID ziurtagiria, segregazioa; jende askoren babesarekin. Bertigoa. Gure lagun, senide eta lankideek ez ote gaituzte aldamenean nahi?

Urte bat osatzeko doinua

ONINTZA LASA ARTEAGA
TOLOSARRA

Bi mila eta hogeita bi urtea; hogei hogeita bi urtea. Ez da berdina. Niri belarrira ez dit berdin ematen. Ez dit erantzun berdina eragiten. Lehenengo kasuan, hitza modu bakar eta luzean jasotzen den bezala, bigarren moduan, erritmo arin eta indartsua finkatzen duen hitzetan banatuta dago; aurrera jarraitzeko gogo eta grina sortarazten duen ahoskatzeko beste modu baten irudikatzen dut hitza nire baitan. Tapa, tapa. Egia da, hala ere, batean zein bestean, denbora epe berdinaz ari garela. Zergatik irteten zait nahigabean hasi berri dugun urtea honela banaturik? Agidanez, urte honek garapen sendo eta indartsua izango duela pentsatu nahi dut. Eta energia baikorrez beteriko pentsamendu horrek nire jarreran eta munduari aurre egiteko moduetan itzulpen zuzena izango duela sinisturik nago akaso. Hala bedi!

Erritmoa doinu eta isilune ezberdinen jarraipen gisa definitu daiteke. Bataren eta bestearen tartea, batzuetan modu erregularrean bestetan ez. Batzuetan mantsoagoa bestetan azkarragoa. Norberaren aldarteak musikaren *sormenean* zerikusirik baduela esaten dute askok eta nire barruko musika honela dator aurtengoan.

Musikak *pertsonengan eragin eta ondorio* handia duela ere jakina da; gogo-aldarte ezberdina sortarazten du lo kanta batek edo dantza sueltoko pieza batek, esaterako.

Urtarrileko lehen egun hauetan ohikoa izaten da, «orri zuria betetzeko momentua» dela entzutea. Erronka berriak, beti egiteko eta beti egiteke geratuko diren horiek. Musikaz ari garelarik, urteko pieza sortzeko nota jartzeko garaia dela esango genuke. Egia esan, nik gehiago sinesten dut aurretik zetorren hori moldatzeko aukeretan. Ez dut uste berri berririk, emakumeok zein gizonek ezer asmatuko dugunik; aukera gehiago dago esperientziak gidatuta aritzeko, hutsetik hastea baino. «Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu» eta gure etorkizuna ere bide bertsutik jarraituko dugu eraikitzen.

Musikaz ari garelarik, urteko pieza sortzeko nota jartzeko garaia dela esango genuke. Egia esan, nik gehiago sinesten dut aurretik zetorren hori moldatzeko aukeretan.

Hogei hogei urtea geldiune garaia izan zen eta era berean inflexio puntua ere bai; iazkoa etsipenarekin lotzen dut, nola edo hala aurrera egin behar batean. Hogei hogeita biak beste zerbait izan behar du. Ikusitakoak ikusita, ikasitakotik ere izango denaren itxaropenarekin egin diot agur urte zaharrari eta diosala berriari. Sendo, gogotsu. Urte berri zoriontsu on!

ANE ZUBIA ARANALDE
HARITUZ-EKO KIDEA

Probaz proba

Proba batetik beste
probaraino salto
Positiboak plater
denetarako
Olentzerori berriz
oroitu beharko
nahiz aurten berandu den,
hurrengo urterako:
Esperantzaz bapo,
eta zentzu asko,
dena onerako,
behar dugulako...
Egin da(g)igun gugatik
ta guretzako.

naturbero

Tel.: 678 15 70 83 • info@naturbero.com

Uparan industriagunea 2 • ADUNA

Egin zure eskaera whatsapp bidez!

AGENDA

OSTIRALA
URTARRILAK 7

ALKIZA
ERAKUSKETA

Hitzak zaindari. Erakusketa ibiltaria Alkizan. Euskal liburugintzaren eragileek, zaintzaren gaia ardatz hartuta sortutako ekimena da *Hitzak zaidari*. Ikusgai Fagus Alkiza interpretazio zentroan, urtarrilaren 14a bitarte.

ANOETA
BATZAR IREKIA

17:00. Gazte Koordinadora Sozialistak deituta batzar irekia, *Burgesiaren diktadura gelditu!*, Gaztetxean.

TOLOSA
OMENALDIA

19:00. 22. Korrikak Pirritx, Porrotx eta Marimototsi omenaldia eskainiko die Gure Zirkuarekin elkarlanean. San Esteban auzoan kokaturiko Gure Zirkuan bertan.

ARTE AZOKA

3 tabernak Arte Azoka antolatu du urtarrilaren 9a bitarte. Bertan izango diren lanen egileak: Oihana Ugarte Iriarte, Idoia Elosegi Urteaga, Txitxi Orbegozo Rezola, Igor Obeso Agirre, Oskar Tena Gonzalez, Miren Gonzalez Goikoetxea, Alberto Letamendi Ramirez, Edurne Sudupe Zabalo, Miren Atxaga Arnedo, Arantza Munita Irisarri, Lamberto Perurena Lazkano, Cabrmen eta Silvia Mateo Orus eta Mikel Garmendia Uranga. Urtarrilaren 9a bitarte ikusgai.

ERAKUSKETAK

Biniloko diskak eta txotxongiloak. Lleidako Txotxongilo Zentroak binilozko diskoen eta txotxongilo munduaren arteko harremana islatzen duen erakusketa berezi bat ekarri du Topic-eko Anbigura. Bertan, txotxongiloei erreferentzia egiten dien hainbat binilo karatulen bilduma eskaintzen ditu bakoitzaren musika entzuteko aukerarekin batera.

Sükrü Karakus, mistika eta tekno-popa. Bere pintura akrilikoetan, Sükrü Karakusek mundua antolatzeko eta ulertzeko hainbat sistema deitzen ditu, osatzen gaituzten informazio- eta sentiberatasun-egituren desberdintasun konplexua akoplatzen saiatuz... Neo-pop estetikarekin, Karakusek gure kontzientzia-ereduek osatzen duten emari tekno-urbanoan murgiltzen gaitu. Zentzumen-inputen ugaritasun hori ordenatzen saiatzen da, baina konplexutasuna alde batera utzi gabe... Aranburu jauregian ikusgai, urtarrilaren 15a bitarte.

EMAKUMEArtean. Jabetze Eskolako ikasleen lanak (argazkiak, pinturak, xilografiak...) egongo dira ikusgai Tolosako Aranburu jauregian, urtarrilaren 8a bitarte. Ura Iturralde, Leire Markinez eta Oihana Ugartek osatu dute erakusketa euren ikastaroetako parte hartzaileen lanekin.

ZIZURKIL
GAZTEZULO

Xaboi tailerra, LH 4-5-6 mailetako ikasleentzat.

LARUNBATA
URTARRILAK 8

AMASA-VILLABONA
BATZAR IREKIA

12:00. Gazte Koordinadora Sozialistak deituta, batzar irekiak. *Burgesiaren diktadura gelditu!*, Onddo Gaztetxean.

TOLOSA
BISITA ANTZEZTUA

11:00 eta 12:00. Bisita antzeztuak egingo dituzte Topic museoan zehar; 11:00etan gaztelaniaz eta 12:00etan euskaraz. Izena emateko 943 65 04 14 telefono zenbakira deitu behar da edo *cit@cittolosa.com* helbidera idatzi.

ANTZERKIA

12:00 eta 16:00. Irurako ikastolak antolatuta, *Goa!zen 8.0* antzezlana, Leidor aretoan.

TOLOSALDEA
MANIFESTAZIOAK

17:00. Herriz herri eta plazaz plazaz manifestazioak izango dira Sarek deituta. *Bidean. Elkarbizitzarako. Bakerako. Etxerako* lemarekin abiatuko dira, euskal presoen eskubideen alde.

ZIZURKIL
KONTZERTUA

22:00. Iker Laurobaren kontzertua, Joxe Arregi plazan.

IGANDEA
URTARRILAK 9

EMANALDIA

12:00. Gimnasia erritmikoko taldeak, Eguberrietako emanaldia eskainiko du, Leidorren.

ASTELEHENA
URTARRILAK 10

BERASTEGI
HITZALDIA

18:00. *Guraso izatearen artea* hitzaldia Nerea Mendizabalen eskutik, udaletxeko erabilera anitzeko gelan.

TOLOSA
ELKARRETARATZEA

12:00. Tolosaldeko pentsionistek ohiko elkarretaratzeari ekingo diote. Udaletxe aurrean bilduko dira eguerdian eta manifestazioan zeharkatuko dituzte Tolosako kaleak.

ZINEMA

CLIFFORD
EL GRAN PERRO ROJO

Larunbata eta igandea (17:00).
Amasa-Villabona, Gurea.

EL AMOR EN SU LUGAR

Larunbata (22:00)
eta igandea (19:00).
Tolosa, Leidor.

WEST SIDE STORY

Larunbata (19:00), igandea (21:30) eta astelehena (19:00).
Tolosa, Leidor.

EL VALLE DE LAS LINTERNAS

Igandea (17:00).
Tolosa, Leidor.

LA CASA GUCCI

Larunbata (19:30 eta 22:00), igandea (19:30).
Amasa-Villabona, Gurea.

OHARRA. *Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda da honakoa. Jakina denez COVID-19ak unean uneko aldaketak sortu ditzake.*

«ESKUZ EGINDAKOAK GOXOTASUNA ETA UKITU HUMANOA EMATEN DIO DISEINUARI»

ARITZ PEREDA SAN SEBASTIAN
DISEINATZAILEA
KONTUZ KREATIBOAK

Diseinuetan gerturatze fisikoari ematen dio garrantzia, eskulanari. Emaitzari bezainbeste erreparatzen dio sormen prozesuari eta denbora hartzen du lanerako. Eskuz egindakoak balio gehigarria du beretzat.

Jon Miranda

Tolosan kokatuta dagoen diseinu grafikoko artisau tailerreko arduraduna da Aritz Pereda San Sebastian (Ibarra, 1984). Kontu handiarekin, arreta handiarekin, mimoz eta behar bezainbesteko denbora hartuta egiten du lan. Hortik bere proiektuari jarri dion izena: Kontuz Kreatiboak.

Noiz eta zergatik sortu zenuen Kontuz Kreatiboak proiektua?

2016an abiatu nuen proiektua. Nik aurretik, hamar urte neramatzan Ibarrako diseinu grafikoko enpresa batean lanean. Hainbeste denboraren ostean, neure burua ez aurrera ez atzera ikusten nuen eta beste zerbaitetan hasi behar nuela sentitu nuen. Jakin nuen Lehiberrin enpresa haztegi bat zegoela martxan. Nire asmoak azaldu nizkien eta animatu ninduten nire kontura jar nendin. Bi urte eman nituen han eta gero lokala hartu nuen hemen, Samaniego kalean, Tolosan. Ordutik hemen ari naiz lanean.

Zure proiektuan eskulangintzak garrantzia handia du. Zergatik aukeratu zenuen lan egiteko modu hau?

Nik diseinu grafikoarekin lotutako goi mailako gradu bat egin nuen Urnietan eta han ere ordenagailuarekin lan egitera bideratzen gintuzten. Horri buelta bat ematea neukan buruan, beti gustatu izan baitzait artisautza eta eskuekin lan egitea. Pentsatu nuen hori izan zitekeela nire puntua, nire ekarpena. Begiratzen baduzu, antzematen da egiazkoak direla nik egiten ditudan lanak. Atzean dagoen materiala ikusi egiten da eta gustatzen zait bolumenarekin jolastea.

> «Begiratzen baduzu antzematen da egiazkoak direla nik egiten ditudan lanak. Materiala ikusi egiten da»

Zein da zure diseinuen abiapuntua?

Lan bati ekiten diotenean beti pentsatzen dut nola egin daitekeen egiazkoa den zerbait. Gerturatze bat egiten dut materiala bera erabilita, gero horri argazki bat atera eta ordenagailura pasatzen dut. Proiektuaren arabera material bat edo bestea aukeratzen dut, hori izaten da abiapuntua. Bilaketa prozesu bat izaten da, pantailatik atera eta irudimenari eragin behar izaten diot. Lanaren arabera, batzuetan azkarrago edo besteetan motelago etortzen zaizkizu ideiak.

Diseinu bakoitza pentsatzeko eta prestatzeko hartzen duzun denborari garrantzia ematen diozu?

Ordenagailuan lan egiteak bat-batekotasun hori ematen dizu. Berehala egin daitezke lanak eta edozer gauza sortu daiteke modu digitalean. Nire kasuan, ez da hain erraza, artisau moduan lan egiteak denbora eskatzen du. Horregatik gustatzen zait prozesu guztia dokumentatzea eta bezeroari erakustea. Bion artean elkarrizketa bat sortu eta bezeroa irekita badago elkarrekin negoziatuz adosten ditugu pausoak.

Uste duzu bezeroek, oro har, balioa ematen diotela diseinu grafikoari?

Badaude batzuk baietz. Ikusten dute sortutako diseinuak ordezkatzen duela berak esan nahi duen hori eta prozesuaren parte izan den heinean berea sentitzen du baita emaitza ere. Gero badaude beste bezero batzuk kartel bat, edo logotipo bat eskatzen dizutenak eta harago joan nahi ez dutenak. Nire lana izaten da haiek konbentzitzen saiatzea, haiekin informazioa partekatzea eta nire lan prozesuaren parte bihurtzea.

Askotan eskatzen al dizute enpresa edo entitate baten iruditeria osoa lantzea?

Bai. Diseinatzaile grafiko gisa, onena horixe da. Zuri irudi osoa lantzea eskatzen badizute koherentzia landu dezakezu. Ikuspegi orokor bat emateko aukera ematen dizu irudi osoa diseinatzeak.

Zaila egiten zaizu zure lanei prezioa jartzea?

Ez da erraza. Artisautza sartzen denean prezioak aldatu egiten dira. Nola baloratu lan hori pentsatzen, prestatzen eta lantzen eman duzun denbora? Sorkuntza lanei dirutan balioa ematea zaila da. Hala ere, diseinu on bat inbertsio bezala ulertzen duen bezeroak errazago ordainduko du. Ulertu behar dute gurea ez dela torlojuak egitea. Badirudi honetan aritzen garenak afizioz soilik ari garela. Garai batean, garrantzi handia ematen zitzaion eskulangintzari; letragileak egoten ziren, errotulatzaileak eta abar. Gero ordenagailuen bolada etorri zen eta informatikan ondotxo moldatzen zen edozeini enkargatzen zitzaion kartel bat edo diseinu bat egitea, horrekin nahikoa balitz bezala. Uste dut orain bueltatzen ari garela lehengo garaietara. Jendeak badu kezka gauza hauekin. Esklusibotasun horren bila dabil bezeroa.

> «Bion artean elkarrizketa bat sortu eta bezeroa irekita badago, elkarrekin negoziatuz adosten ditugu pausoak»

Enkarguz egiten dituzu lanik gehienak?

Bai. Egiten dudan lanen %60 inguru enkarguak izaten dira eta gainerako %40, berriz, esperimentazioa. Nire interes eta kezketan arakatzen saiatzen naiz eta horri denbora eskaintzen diot. Azken batean, gerora etorriko diren lanen oinarrietako asko aurrez esperimentatutakoetatik datoz. Tailerrean egiten dudan lan horrek ematen dit jakinduria eta ezagutza, gero beste lanetarako esperientzia bezala balio didana. Trebatu egiten naiz teknika ezberdinetan.

Zein material erabiltzen duzu gehienbat?

Denetarik erabili izan dut. Hormigoia, adibidez, azkeneko lanetako batean. Baina bestela edozer gauza zait baliagarri. Egia da, Tolosan egonik, papera oso presente dudala eta nire diseinu askoren oinarrian dagoela. Oso material noblea da eta oso moldagarria. Egitura sendoak edo finak sortzeko balio dizu eta momentu batean margotu dezakezu edo erre, komeni zaizunaren arabera. Aukera asko ematen du.

Eskuz egindakoak, ordea, akatsa izan dezake.

Bai. Baina eskuz egindakoak goxotasuna eta ukitu humanoa ematen dio diseinuari. Ordenagailuz egindakoa ia perfektua da. Niri erakartzen nauena, ordea, inperfekzioa da. Pertsona batek egin duela sumatzea. Inperfekzioa da gizakiak uzten duen lorratza.

Zurea diseinu grafikoko estudio bat edo tailer bat?

Espazio hau diseinatu genuenean tailer bezala irudikatu genuen. Tailer grafikoa deitzen diot. Ez da, ez bulego bat, ez denda bat. Txokoak daude ezberdinduta: ordenagailuarena, muntaiarena, argazki estudioarena. Egindako lanak ere ikusgai daude gerturatzen diren bezeroentzat.

«Niri erakartzen nauena, ordea, inperfekzioa da. Pertsona batek egin duela sumatzea»

Zure ibilbidean zer-nolako diseinuak landu dituzu batez ere?

Gehienbat kartelak, tabernetarako arbelak, logotipoak, katalogoak egiten ditut. Niri gehien gustatzen zaidana kartela da, berehalakoa delako, segituan sartzen delako begietatik. Lehenengo momentutik arreta deituko duen kartel bat sortzea izaten da nire helburu nagusia.

Inoiz aurkeztu al zara kartel lehiaketaren batera?

Bai, baina utzita daukat dagoeneko. Eskolan bertan bultzatzen



Pereda Tolosako Samaniego kalean duen Kontuz Kreatiboak izeneko estudio eta tailerrean. **J. MIRANDA**

gintuzten horretara, lehiaketetara aurkeztu eta irabaziz gero izen bat hartu dezakezulako. Dena den, ni etsiak hartuta nago aspaldi honetan. Lehiaketa hauetako askok sare sozialetan izaten dituzun atsegite kopuruaren arabera ebazten dira, eta hori ez dut gustuko. Uste dut diseinu grafikoak beste kontsiderazio bat beharko lukeela. Ni dagoeneko ez naiz horrelakoetara aurkezten.

Zein abilidade garatu behar ditu zurea bezalako lan batean jardun nahi duenak?

Pazientzia behar da, eta batez ere, kuriositatea. Nik horri garrantzia handia ematen diot. Kalean noala ere adi ibiltzen naiz, ikuspegi grafikotik, teknika berriak nola landu ditzakedan pentsatzen dut. Ni nahikoa ipurterrea naiz. Gustatzen zait gauza ezberdinekin esperimentatzea, gauza berriak probatzea. Irudi-tzen zait aukerak mugagabeak direla. Begiak zabalik izaten ditut eta erne egoten naiz. Obsesionatu gabe, baina nire bizitzan diseinua presente dago denbora guztian.

Modak oso markatuta etortzen dira diseinu mundu-ra?

Diseinu grafikoan beti egon dira modak. Oso gauza zehatzak izaten dira, tipografia edota kolore jakin batzuk boladan egoten dira. Nik begiratzen diet horrelakoei baina ez dut uste oso moda zale naizenik. gehiago lerratzen naiz nire filosofiari.

Sare sozialak zenbateraino dira garrantzitsuak zure lana zabaltzeko?

Niretzako salmentarako modu bat da. Dagoeneko atez ate joatearenak ez du zentzu handirik nire ofizioan. Sare sozialetan jartzen ditut egindako lanak eta erakusten dut lan horiek egiteko eraman dudan prozesua. Garrantzia handia dute. Sare sozialak ez dira dena, ez duzu obsesionatu behar horrekin. Niretzat marketin erreminta bat da. Badut webgunea, Instagram-a eta Facebook-a. Interesa duten bezeroek bide horietatik jarri daitezke nirekin harremanetan edo bestela Samaniego kalean Tolosan dudan tailerrera gerturatuta.

Bizitzeko modu bat da zuretzat diseinu grafikoa modu honetara lantzea?

Bai. Nik aukeratu dut bizimodu hau. Agian ez da lehen neukana bezain erosoa. Autonomi gisa jarduteak beti dakar ziurgabetasuna. Hala ere, horrek bizitasuna ematen dit eta askatasuna. Bizibidea atera daiteke ofizio honetan, baina niretzat sortzea, batez ere, bizimodua da.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

OSTIRALA
Giro tristea izango dugu. Egun osoan zehar zeruan hodeiak nagusituko dira eta euri kontuak izango ditugu. Zaparradak egun osoan botako ditu, nahiz eta, ez diren oso mardulak izango. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura igo egingo da, maximoak 9-10 gradutan errenditu.

LARUNBATA
Eguraldi lasaiagoa izango dugu. Goizean oraindik zerua estalirik egongo da eta euri zaparrada txikiren bat edo beste izango dugu. Arratsaldeko lehen orduetan atertzera egingo du eta tarteka ostarte txiki batzuk irekiko dira. Haizeak goizean ipar-mendebaldetik joko du. Arratsaldean aldiz mendebal, hego-mendebaldetik. Tenperatura igo eta 11-13 gradu bitartean joko du goia.

IGANDEA
Giro euritsua. Goizean goizetik zerua estalirik egongo da eta euria protagonista izango da. Zaparradak egun osoz botako ditu, baina mardulago eta sarriago egingo du arratsaldean, non tarteka zaparrada handiak botako dituen. Ipar-mendebaldeko haizearen eraginpean jarraituko dugu eta tenperatura beste koska bat igoko da, 12-14 gradutan joaz goia.

ASTELEHENA
Giro euritsuak jarraipena izango du. Goizean euria sarri eta mardul botako du. Arratsaldean pixkanaka geroz eta ahulago eta tartekatuago botako du. Ipar-mendebaldeko haizeak joko du eta tenperatura beste pixka bat igoko da, 13-15 gradutan joaz goia.

ZORION AGURRAK

Urte askoan Nahia!

Nahia Lopetegi Etxedona (Gaztelu). Atzo 12 urte bete zituen. Zorionak eta ondo pasa, familiaren partetik muxu handi bat!

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...
Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95 · ataria@ataria.eus

San Esteban 20 Tolosa

FARMAZIAK

URTARRILAK 7, OSTIRALA
IBARRA
Egunekoa. Edurne Mujika Martinez.
Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

URTARRILAK 8, LARUNBATA
TOLOSA
Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran.
Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

URTARRILAK 9, IGANDEA
TOLOSA
Egunekoa. Lurdes Azpiroz Galarza.
Larramendi, 6.
943 67 51 18.

URTARRILAK 10, ASTELEHENA
TOLOSA
Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2.
943 67 01 28.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA: TOLOSA.
LEIRE ANDRES MORANT.
ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.

ATARIA BERTSO JAIALDIA 2022

Urtarrilak 22,
larunbata, 18:00etan,
Tolosako Leidor
antzokian

Oihana Iguaran
Maialen Lujanbio
Amets Arzallus
Andoni Egaña
Nerea Ibarzabal
Iker Zubeldia

Gai jartzailea:
Amaia Agirre

Antolatzaileak:

ataria

HARITUZ

galtzaundi

Babeslea:

TOLOSA

ikastolak

HEZKUNTZA ERALDATZEN

Aurrematrikula irekia urtarrilaren 17tik 28ra

www.ikastola.eus

ANOETAKO HERRI IKASTOLA · Arrurako Ikastola · ZUBIMUSU IKASTOLA · Laskorain ikastola

ikastolenelkartea